



SUTODOAREN EPELEAN JUANJO URRUTIA IHESLARIA HIL DA
ZER BERRI UDALA PRESOEN ESKUBIDEEN ALDE


piipilean

Soraluzeko Hamabostekaria 107. alea 2005eko martxoaren 11

954 aparkaleku



2118 ibilgailurendako



Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean

GOL

GOL industriak S.A.
Sagar Erreka, 19 45 PK
Telefona: 34 943 75 21 00
Faxa: 34 943 75 17 12
20590 SORALUZE

GOGORTUZ Fisioterapia Zentrua



**Lepoko minak
Erreuma
Erreabilitazioa
Kirol osteko errekupeazioa
Tendinitisak
Zaintiratuak**

Ordutegia:
(goizez) 07:45etik 12:30etara
(arratsaldez) 17:00etatik 21:00etara

Oier Oregi Unamuno
Santa Ana 7
Tel. 943750022





Kaleratu kaltetuak

UNAI LARREATEGI

Irakasle kaleratuak

Bilbon itxialdian dauden horien inguruan honatx kontu batzuk:

- Orain kaltetu sentitzen diren horiek, orain arte pribilegiatuak izan dira. Ze lan-tegitan liberatzen zaituzte hizkuntza bat ikasteko hiru urtez? Urte horietan elegante bizi izan zarete, ezta? Ba, dagoenean bonbon eta ez dagoenean, hor konpon!!!

- Zer ikasiko dute gaur egungo ikasleek, ikasteko gaitasun edo gogorik ez daukaten irakasleengandik? Ikasle onaren-tzat ez omen dago irakasle txarrik baina, ez dakit ba...

- Eskubideak urratu zaizkiela diote irakasleek, eta urteetan euskaldundu ez diren ikasleen eskubideak non gelditzen dira? Azken datuen arabera Euskal Herrian 10 umetatik 6 ez dira euskalduntzen eskolan. Hor konpon, Mari Anton esan eta listo?

Gazte kaleratuak

Hiruzpalau urte badira leiho honetatik bertatik besarkada bat bidaltzen niola kartzelan sartu berri zuten Garazi eibartarrari. Idatziz bidalitako hura beharbada paperean geldituko zen, baina pasa den larunbat honetan aukera izan nuen benetako besarkada bat emateko, bertatik-bertara, Eibarren, kalean.

4 urte, 1.400 egunetik gora kartzelan eduki dute epaitzeke neska gaztea eta kartzelaldi prebentiboko epea amaiturik

kalera atera dute egunotan. Demokrazia-ren izenean eduki omen dute kartzelaraturik...

Herritik kaleratuak

Euskal Herrian, milaka eta milaka erbesterratu izan dira azken hamarkadetan. Honegatik edo hargatik baina milaka herritar bere lurretik kaleratuak, bidaliak. Zenbait intelektual espainolek ere esaten dute, 200.000 mila direla ETA eta bere inguruko jazarpenaren ondorioz gogokontra euskal herritik joandakoak. Nik neuk ez dut inor ezagutzen baina hala badiote...

Ezagutzen ditut ordea 1936an erbesterratuak izan zirenak, eta baita ere ezagutzen ditut gaur egun, Euskal Herritik kanpo bizi diren, preso eta iheslari politiko zenbait. Eta baita ere ezagutzen ditut honen gure herrian izan dituen ondorioak, gordinenak Asier, Iñaki, Casares eta berriki Juanjoren heriotzekin islatuak izan direnak.

Beranduegi zatoz Juanjo, baina hala erre bihoakizu ongi-etorritik beroena. Aurrrera bolie!

Eta gaurkoagatik ez naiz sartuko datoren hauteskundeetako boto emaileen zentsutik kaleratuko diren milaka eta milaka lagunengandik inguruan... bestela irakasle kaleratuak asaldatu egingo zaizkit txikikeria horiei erreparatzearen...

Telegrapak

Berri tristiak Montevideotik. Stop. soraluzetar bat hil da herbestian 15 urte pasatuta. Stop. eta diñue herri honetan ez daguala gatazka politikorik... Stop. senide eta lagunak dakixe onduen horren berri. Stop. eragiten daben sufrimenduaren berri. Stop. Juanjorena ez da lehenengo kasua gure herrixan. Stop. azkena izan deila! Stop. ez deiguzen begiak itxi jentiaeren sufrimenduaren aurrian. Stop. desberdin pentsatu arren, sufrimendua sufrimendu da. Stop. pekaturik ez daukanak bota deixala harrixa Stop. eta boomeranga moduan etorriko jako bueltan Stop. eta begixan joko dau. STOP. bestian sufrimenduari ez-ikusit egitiarren. STOP.ez dira norabide horretakoak zapatuko erasoak zoritxarrez. Stop. gaia aldatuta. Stop. Plazentziako tabernetako edarixen preziuan igoe-ragatik ez da txikitero grebarik izango!. Stop. lehenengouatabernak zabalik mantentzia dalako. Stop. eta aparkamentuena?. Stop. konparaketa bat eginaz. Stop. daren kotxiak eta aparkamentuak kontatuta... Stop. elefante bat tomate pote baten sartzen ahalegintzia modukua da, absurdua. Stop. badira beste borroka zail batzuk. Stop. baina ez etsi!. Stop. euskara ofizial egin arte EH osuan!. Stop. gizon emakumien arteko parekidetasuna lortu arte!. Stop. aukera guztiak aukeran izan arte!. Stop. ika, ika, ika! hemen dator KORRIKA!. Stop. bazatoz?



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkarte

Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze.

Telefonoa 943 75 13 04

comunidades.kzgunea.net/PilPileanKulturaElkarte/EU
pilpilean@euskalnet.net

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno

Erredaktoreak: Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxina, Gorka Salaberria eta Egoitz Unamuno.

Publizitatea: Ugaitz Catalan (943 75 13 04)

Logotipoa: Jon Gabilondo
(943751304 tel.)

Banaketa: Pil-pilean **ekoizpena:** 1.920 ale

Inprimategia: Gertu Koop.

Azala: Silvio Vaz Caro

Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid

I.Z.K.-a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-Pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZEGO
UDALA



EUSKO
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA



Erreportaia

Dagoeneko hilabete pasa da Sacia-ko lurra urbanizatzen hasi zirela. 81 aparkalekuak kentzean 954 geratu ziren herrian. 622 garage partikular dago herri guztian, eta ibilgailuak (auto, kamioi, motor...), berriz, 2118.

Zorion agurrak



Julen Gonzalez
Matxoaren 3an
Zorionak txikito!!
Segi beti bezain
alai eta bihurrika
izaten. Muxu
haundi bat. Danel
eta etxekoan par-
tez.



Maddi Plata
Matxoaren 29an
Zorionak potxola!!
Segi holako sorgint-
xua izaten. Maitte
zaitugu
Etxekuen partez.



Ane Aizpurua eta Koldo Etxaniz
Otsailaren 27an eta 28an 6 urte
Zorionak bikote!!!
Muxu ikaragarri haundixak bixoi.
Etxekuen partez.



Carlos
Martxoaren 11an
Zorionak eta
muxu haundi bat
guapeton!!
Etxekuen partez.



Iraitza Ostolaza
Matxoaren 20an
Zorionak bihotzez
maittia!
Zurekin egunak beti
alai. Asko maite zai-
tugu!!
Aitaxo, amatxo eta
etxekuen partez.




Ana Isabel Uribe
Martxoaren 8an
Zorionak!!!
Jarraitu beti
bezain fin fin.
Etxekuen par-
tez.



Aitor Barrios
Martxoaren 9an
Zorionak! pittin!!
Muxu haundi
haundi bat!!
Etxekuen partez.



Eneko Arizaga
Martxoaren 3an
Zorionak mutil!!
Jarraitu hain jato-
rra izaten.
Etxekuen partez.



Adur Odriozola
Martxoaren 3an
Zorionak pottolo!!
Milaka muxutxu
gure txikiari.
Iruñe, Andoni eta
Yazaren partez.

Iruñe Odriozola
Martxoaren 19an
Zorionak!!
Muxutxuak!
Andoni eta
Adurren partez.

Iragarkiak

Pisu bat salgai SORALUZEN

Hiru logela, egongela, sukalde berria, bainugela, ganbara, despensa eta bal-koia. Dena kanpoaldera begira. Prezio onean. Mug. 649052585

Pisu bat salgai SORALUZEN

Sukaldea eta komunak amueblatuta. Garaje eta solairuartekoa eta txokoa (144 m²). Mug. 615779920

Pisu bat alokairuan hartzeko

Soraluzeko bi neska gaztek etxe bat hartu nahiko genuke alokairuan. Mug. 616156136 (Ihart eta Edurne)

jaiotakoak

Amaia Hernandez Morales
Yasser El Kanoumi Hnini
Lorea Azkona Iñarra

hildakoak

Miguel Angel Artolazabal Arluziaga
Miguel Olaizola Maiztegi
Concepción Lizarralde Altuna
Anastasia Maiztegi Unzueta
Santiago Urrutia Pia
Santiago Rodriguez de la Iglesia Bautista

Gutunak

KAIXO JUANJO!

Inoiz ez genuke nahi izango era honetan egitea, baina hau, maite genuen lagun bati eta azken 16 urteetan elkarrekin egon ezin izan geranantzako kaixo eta zoritxarrez agur bat da.

Hasteko, gogora datozkigu elektrika-ko iturrian egunsenti, arratsalde eta gauerdia haiek, txabolako sutondoaren epelean denetarikoa gai eta eztabaida ateratzen zirenen gau guzti haiekin jarrai-zeko.

Gero Juanjo, zure desagertzea etorri zen, ihesean, jasartua, soraluzetar bat baino gehiago jasartuak izan ziren es-traineiko gau hartan...

Ez genuen zutaz luzaroan jakin eta gero berriak heldu ziren, ondo zeunden. Urteak aurrera, seme bat izan zenuela jakin genuen, AIMAR, zure indar eta sostengu zenituen gabezia guztiak jasan ahal izateko; zure familiarengandik urrun, zure herritik urrun, lagunengandik urrun..., baina bazenuen sostengua.

Azken berria gogorrena izan zen "Juanjo gaizki dago!". Badakigu zure indar guztiakin borrokatu zenuela aurrera jarraitzeko eta zure semearekin Euskal Herrian libre bizi ahal izateko. Zure gorputzak ezin izan du jasan eta inoiz nahi izan ez genukeen eran hartu behar zaitugu hainbeste maite zenuen zure herri honetan.

Juanjo egunen batean berriro elkar-tuko gara eta galdutako urte hauek be-reskuratuko ditugu.

MAITE ZAITUGU JUANJO!

Zure lagunak

JUANJORI

Batzuk sorlekutik urrun hiltzen dira derrigorrez.

Hilkutxa batzuk sehasketatik urruti Behar dira jarri.

Gu ez gara Igorretan hilgo, hareatzan eroriko gara.

Gerlan jaurtiriko geziak lez.

Oihanean hobiratuko gaituzte, le-hengusu eta lagunengandik gutunetan estalirik.

Haizeak gure errautsak eramanen ditu, beste hizkuntzetan mintzo diren ezpainetaraino.

Gure aitaren etxeak zutik iraunen du gu gabe.

(Joseba Sarrionaindia)

"ETXEAN NAHI DITUGU" izan da urte luze hauetan senideok aldarrikatu dugun beharra.

Euskal herritarrak erbesteratzea eta espetxeratzea daramaten arrazoiak gaituzte eta justizian oinarritutako ba-kearekin amestu dugu. Hainbeste sufrimendu, hainbeste errepresaliatu poli-tiko sortzen dituen gatazka amaizeare-kin amesten dugu.

Eta une latz hauetan, Juanjoren he-riotzaren aurrean, aldarrikapen hau bota nahi dugu, etsipenari lekua utzi gabe. Ezin ukatu tristuraz jota gaudela, ondo baino hobeto dakigulako zer nola-ko egoera gogorretan bizi izan den Juan-jo, beste hainbat eta hainbat iheslariren moduan. Bere inguruetatik aterata behar izan zuen, ezkutuan askotan, bakarrak beste hainbatetan. Eskubide gabeko pertsona bezela katalogatu nahi izan dute, paperik gabe, izen gabe...

Nahiz eta urrun, oso urrun egon, ki-lometro askotara, itsaso zabal bat tarte-an egonik, espainiar estatuaren gorroto eta mendeku politikak ez du atsedetik izan, presio bide guztiak erabiltzen baiti-tu euskaldunak zigortzeko. Zama haun-dia eta astuna guztintzat baina esperan-tza beti bizirik daukagu. Juanjori egin diezaiokgun omenaldirik onena, bide berberetik jarraitzea izango da. Era be-rean bere gurasoei eta etxeko guztiei gure elkartasun osoa adierazi nahi die-gu.

Eta zuri Juanjo, gauzatxo bat baka-rrik:

GURE BIHOTZEAN IZANGO ZARA BETIRAKO!

Soraluzeko Etxerat

Zer irizten dotsazu?

Joan zen hilean Soraluzeko tabernariak batazbeste bost zentimo jaso zituzten edarien prezioak. Herritarren eritzia jaso nahi izan dugu edarien prezioen inguruan. Beste herriekin alderatuta prezioak zela ikusten dituzten, igoera zer iruditzen zaien...

Ze pentzatzun jatzuz Soraluzeko tabernetako prezioak beste herrixetakuekin konparatuta?



Ainhoa Lete
31 urte Dekoratzaila

Oin gutxi ibiltzen naiz tabernetan baina neretzat garestia da poteuan ibiltzia. Egixa da hemen merkiagua dala beste herrixetan baino. Ni ez dot igarri igoeria.



Cesar Alcazar
23 urte Tabernaria

Produkziñuak eta edarixak egiteko teknikak ez dabe igo prezia baina soldatak mantendu biharra dago. Soraluze beste herrixekin konparauta merkia da. Ez da kexarik egon txantxetako komentariuak bakarrik.



Antonio Gonzalez
63 Jubilatua

Nik ardaa bakarrik edaten dot eta oso garestixa iruditzen jata 8 pezeta jasotzia bapatian. Osintxun hemen baino merkiago dago ardaa. Jentiak nik diñotena diño, oso garestia daguala.



Nerea Oregi
30 urte Komertziala

Garestixa iruditzen jata. Poteo bat egitia garestixa da. Antzera ikusten ditut hemengo eta beste herrixetako prezioak. Ez dot igarri aldaketarik egixa esan ez dakit-eta zurito batek zenbat balio daben.



Monika Muro
32 urte Langilea

Prezioak tabernetan ondo dare, ez dot hainbesterako ikusten igoeria, beste herrixekin konparauta hau merkiagua da. Oingo ez dot igarri, baina Eibarrera jauten bazara han garestixagua da eta hemen zuritoak galantak dira.



Jose Maria Alvarez
31 urte Ingenieroa

Bost zentimo ez dot uste igoera haundixa danik. Tabernarixei be beste gauzak igotzen jakuez eta orduan berak be igo bihar dabe. Nik Madrid eta Donosti eza gutzen ditut asko eta horrikin konparauta hemen oso merke dago dana.

Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Tlfonoa: 943 75 17 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA



Hnos. BENITO
ANAIK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Hizkuntz eskubideei buruzko hitzaldia

Paul Bibao Hizkuntz Eskubideen Behatokiko zuzendaria abadetxeko kappillan izan genuen martxoaren 3an, hizkuntz eskubideei buruzko hitzaldia ematen. Bere jardunean, hiru galdera hauei erantzuten saiatu zen: zer dira hizkuntz eskubideak? Nori aitortu behar zaizkio? Nola bermatzen dira? Bu-kaeran, Euskal Herriko egoera konkretoa ekarri zuen gogora.

Bilbaoren esanetan, hizkuntz eskubidea hizkuntza erabiltzeko eskubidea da; hizkuntza hori erabiltzeko eskubidea baliatu nahi badugu hizkuntza hori ezagutu egin behar dugu. Euskal Herrian hizkuntza eskubideak bermatzeko ezinbestekoa da herritar guztiak hizkuntza hori ezagutzea, bestela ezin izango dute hizkuntza eskubide hori baliatu.

Gaur egun "mundu guztiak hitzegiten du hizkuntza eskubideez baina artean ondo definitzeko daude" esan zuen Bilbaok, gaineratuz nazioarteko hitzarmenetan ere ez dagoela garatuta. "Beti saihestu da arazoa nazioarteko hitzarmenetan, baita orain ere Europako konstituzio itunean".

Euskal Herrira itzuliz, euskalgintza-aren lana goraiatu zuen: "ez da kapritxo bat hizkuntz eskubideen errespetua eskatzea. Poliki-poliki ari gara emaitzak lortzen". Behatokiaren zuzendariak



argi adierazi zuen Euskal Herrian hizkuntza eskubideak ez direla errespetatzen eta gaineratu "errudun sentiarazi nahi gaituzte gainera", "Otro que viene a joder, otro caprichoso!"

Behatokitik hizkuntza eskubideen urraketak salatzen dituzte. Horretarako euskararen telefonoa daukate (902194332); bertara urtean 800-1000 bat kexa iristen dira. Kexatu direnen izenak ixilean gordetzen dituzte. "Guk gero administrazioa bideratzen ditugu

kexak. Nire hizkuntz eskubideak urratzen ari zara? Legea ez duzu bete? Oso ondo. Ba guk administrazioari biladuko diogu hori. Eta benetan, inori ez zaio gustatzen legea urratu duela entzuteak".

Bukatzeko, gaineratu zuen euskarak ez diola inori lana kentzen; euskara lan batzuetarako beste baldintza bat da, windows edo excell izan daitekeen moduan. Inori ez zaio bururatzen esatea windows-ek lana kendu diola. Euskararekin, ordea, horrela gertatzen da.

Gabolats-Arraikua pasabidea itxita



Gabolats eta Arraikua lotzen dituen pasabidea itxita egongo da kale horietara ematen duen SACIAko pareta bat bota bitartean. Hori dela eta, Udalak jakinaren gainean jarri nahi izan ditu bereziki Gabolats kaleko 1, 3, 5 eta Arraikuko 1, 2 zenbakidun etxeetako jabeak, hauts eta zikinkeriak saihesteko pertsianak itxita eukitzeko eskatuz. Exkabadoreen laguntzaz, SACIAKO lurrak berdintzen ari dira langileak, gero bertan etxeak eraiki ahal izateko.

Garazi Arizagaren idazlana onena

Garazi Arizagak irabazi du DEBE-GESAK (Debabarreneko Garapen Ekonomikorako Elkarteak) antolatutako "Emakumeak industriari erakartzen" saria. Lehiaketara Ermua, Eibar, Murtiku, Elgoibar eta Soraluzeko institutu-tuetako 3.mailako 154 ikasleren idazlanak aurkeztu dira. Helburua ikasketen teknologikoetan emakumearen presentzia sustatzea da. Idazlana "Lehendakaria izango banintz..." gaiaren inguruan idatzi behar zen.



LAUDIN
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g tf: 943752150
138 Postakutxa Faxa: 943752118

SORALUZE



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

Udala Presoen eskubideen alde

Joan den martxoaren 3 an egin zen Udaltzarrean 3 mozio aurrezteku eta bozkatu zituzten Udaletxeko alderdi politikotako ordezkariak.

Lehenengo mozioan Soledad del Bosque alderdi sozialistako ordezkariak Asia hego-ekialdean tsunamiaren ondorioz kaltetutakoei elkartasuna adieraztea eta laguntza ekonomikoa ematea eskatu zuen. Bozketan, EAJ, EA, PSE eta PPko ordezkariak baiezko botoa eman zuten.

Bigarren mozioa Soraluzeko askatasu haizeak-ek (SAH) aurrezteku zuen. Bertan, Madrilgo entzutegi nazionalan egiten diharduten 42 gazteren aurkako epaiketaren arira, udalari eskatu zitzaion gazte hauei babesa ematea eta herritarreri dei egitea elkartasun ekin-tzetan parte hartzeko. Bozketan, SAH-ren aldeko bi boto jaso zuen. Gainontzeko alderdiek ezezko botoa eman zuten. PPko ordezkariak bere botoa azaldu zuten esanez epaitzen ari diren gaztetxoak erakunde armatuaren alderdirik eraginkorra eta arriskutsuena direla.

Hirugarren mozioa EAJ, EA eta SAH-ek aurrezteku zuten. Euskal Preso politikuenganako babesa eta konpromezua zituen apagai mozioak eta espe-



txe politika eta dispersioaren bukaera eskatzen zen. Mozioa EAJ-EA eta SAH-ren aldeko botoekin onartu zen. PP eta PSE aurka agertu ziren.

Alderdi sozialistako ordezkariak adierazi zuten berari ere gehiegi iruditzen zaizkiola espetxe politikaren ondorioz hil diren senitartekoak baina EAJri zuzenduz galdetu zuen ea zergatik ez den antzerako moziorik sekula aurrezteku ETak hildakoengatik. Oscar Gabilondo alkateak erantzun zion eurak beti egon direla giza eskubide guztien alde.

Plenua amaieran, SAH-ko Monika Murok idatzi bat irakurri zuen joan zen astean Uruguayn hil zan Juanjo Urrutia iheslari plazentziatarra goratzeko.

Erasoa PSE eta BBVA-ko egoitzei

Larunbatean Juanjo Urrutia iheslari plazentziatarri egindako omenaldiaren ostean aurpegia estalita zeramaten 15 bat ezezagunek BBV-ko egoitzari eraso zioten. Udaltzaingoa adierazi digutenez, zortzietan Gila zubiko zaborrontzi bati su eman eta bankuetxeko atean lehergailu bat eztanda arazi zuten. Suak kalteak eragin zituen eraikineko fatxadan eta alboan zegoen motor batean. Ertzaintza istilu-gunera iritsi aurretik udaltzainek amatatu zuten sua. Bestalde, PSE-ren egoitzan likido errekorrez betetako pote bat jarri zuten. Ertzantzak erdigunea itxi zuen badaezpada baina ez zen ez-tandarik izan.



Prezioak gora herriko tabernetan

Herriko tabernariak edari gehien prezioak 5 zentimo igotzeko erabakia hartu zuten aratuzte inguruan urtero egin ohi duten bileran. Igoeraren ostean txikitoak 35 zm balio du, bereziak 80, zuritoak 75, urak 65, KAS eta antzerako freskagarriak 1,40; kafeak 90 zm eta ebakiak 1,05. Salbuespenen artean kiantza ardoa eta gorri berezia daude 10 zmko igorarekin; trago luzeek prezio berean jarraitzen dute. Inguruko herrietan garestixeago daude edariak. Eibarko tabernetan, esaterako, 5 eta 10 zm gehiago balio dute edari gehienek.



Anastasia hil da

Anastasia Maiztegi dendari ezaguna otsailaren 28an hil zen, 92 urte zituela. 40. hamarkadan Cecilio senarrarekin batera "Arce-lus" denda jarri zuen Goikokaletan zegoen farmaziaren lekuan. Hasi-eran, Cecilio egurrak tailatzeko zuen afizioak eraginda, altzaridenda izan zen. Ondoren, paperdenda. Denda gutxi zegoenean denetarik saltzen zuen; nola zapatak hala baserriarrendako haziak. Mari Jose bere alabak adierazi digu euroa iritsi zen arte Anastasiak lanean jarraitu zuela



EDURTZA kafetegia
Taberna eta jatetxe zerbitzua

Eguneroko menua eta pintxoak

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze



Barra kargadore automatikoak eta makina bereziak

ETXEHUN, S.A.L.

Mendiola Industrialdea 14-5
Tfnoa 943 75 18 91
Faxa 943 75 24 58
E - maila: etxehun@teletel.net
etxehun@euskaltel.net

20590 SORALUZE
Gipuzkoa

Auto larregi ala apar- kaleku gutxie- gi ?



Irudian, Loraldeko aparkalekuan auto ilarari ateratako argazkia. Hitchcok-en txoriak bezala, badirudi aut oak herria inbaditzeko gertu daudela.

Galdera ergel honen atzean lehena-gotik datorren arazo bat dago: dexente gehiago dira herrian autoak aparkalekuak baino. Arazoa larriagotu egin zen joan den hilean, SACIAko eta Ariasenko behin-behineko aparkalekuak kendu zituztenean. Jakinekua zen erdigunetik oso urrean zeuden aparkalekuak (81 guztira) kentzean, aparkatzeko arazo larriagotuko zela. Egoera berriaren aurrean, auto erabiltzaileen, Udaltzain buruaren eta Udaleko ordezkarien ikuspuntua ezagutu nahi izan du gu erreportai honetan

4188biztanle, 2118 ibilgailu, 954 aparkaleku

Dagoeneko hilabete pasa da Saciako lurraz urbanizatzen hasi zirela. 81 aparkalekuak kentzean 954 geratu ziren herrian; horietako 200 Mendiola industrialdean. 622 garage partikular plaza dago herri guztian, eta ibilgailuak (auto, kamioi, motor, remolke...), berriz, 2118 dira. Sekula baino arazo haundiagoa dago Sorraluzen aparkatu ahal izateko. Udalak, Saciako 81 aparkalekuen falta konpentsatze aldera, Loraldean eta Estazioetik Oleara bidean aparkatzeko baime-na eman du. Aparkaleku hauek, baina, erdigunetik urrinegi daude autoerabiltzaile askorentzat. Arazoak erdigunean sortzen dira.

Erregetxeko aparkalekuak

Saciako eta Ariasenko aparkalekuak hustutzean larriagotuko zen arazo aurreikusitako eta Udalak Erregetxeko lurrazpiko aparkalekuen egitasmoa aurkeztu ziren herritarrei iazko urrian. Oscar Gabilondo alkateak 120 aparkaleku berri egiteko asmoa adierazi zien Udaltzainaren

bildu ziren herritarrei. Bide batez, Udalak, herritarrei -



Zeletako zubi berriko espaloiaz berehala jabetu zen furgoneta hau.

rrek aparkalekuekiko zuten interesa ezagutu nahi zuen, izena emateko zerrendak ireki eta interesaren arabera proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa neur-tu ahal izateko. Aparkalekuak kontzesio bidez eskeiniko ziren.

Hirigintza batzordeburuak adierazi digunez, Erregetxeko lurrazpiko aparkalekuetarako 149 lagunek eman dute izena orain arte.

Babes Ofizialeko Etxebizitzak eta erregetxeko aparkalekuak

Babes Ofizialeko Etxeak Izartu II programaren barruan daude sartuta. Programa hau 2004 eta 2008 urte bitartean burutzekoa da. Oscar Gabilondo alkatearen esanetan, Saciako urbanizatze



Hau Zeletako parkea da.

APARKALEKU KOPURUA KALEKA

- Zeleta.....	28
- Estazioa.....	44
- Calonje.....	15
- Loralde.....	33
- Gabolats.....	23
- Eoziko bidea.....	154
- Polig. sarrera.....	30
- Polig. enpresetan.....	200
- Sagar Erreka.....	55
- Baltegieta.....	49
- Zubi zaharra.....	20
- Santa Ana.....	50
- Frontoia.....	13
- Erregetxea.....	58
- Arias.....	31
- Sacia.....	50
- Atxuri.....	44
- Errekalde/gip. etor.....	70

lanak amaitzen dituztenean etxeak eraikitzen hasten badira, nekesagoa izango da gero atzera lurrazpia mugitzea. Teknikoki egokiagoa ei da lehenengo lurrazpiko aparkalekuak egitea eta ondoren, berriz, etxeak. Lehentasuna aparkalekuek izango dutela adierazi digu alkateak. Hurrengo pausua aparkalekuen proiektua konkursora ateratzea izango da; eperik ez du jarri.

Sorraluzekobiztanle kopuruak behara egiten du; autoenak, berriz, gora. Ideiak, proposamenak eta dirua beharko dira etorkizunean ere arazoak arintzeko.

IÑAKI ARRIAGA - Udaltzain burua



Iñaki Arriagak eta bere lankideek igarri dute euren lanean herrian aparkatzeko dauden arazoak. 23 urteko esperientzia dauka udaltzain lanetan eta bere eritzia ezagutu nahi izan dugu. Arazoa arintzeko gomendioak eman dizkigu eta baita zenbait bronka bota ere

-Zer dago Plazentzian; auto larregi edo aparkaleku gtxiegi?

Herri askotan moduan auto larregi. Oin dala 23urte, ni hamen hasi nitzanian 1000 ta gutxi ibilgailu zeguan. Oin, berriz, 2118; hainbeste autondako aparkalekurik ez dago. Inguruko herrixak zabalaguak dira eta arazo gixiagoko dake.

-Zela dago trafikua momentu honetan?

Herrixa hankaz gora dago obrekin eta Sacia eta Ariasenekoa exkabaziño lanekin murriztu egin dira aparkalekuak. Hori konpentsatzeko Loralden eta Oleara bidian aparkatzeko baime-na emon dogu, baina aparkatzeko problemiak jarraitzen dau.

-Nun sortzen da arazorik gehien?

“Auto-erabiltzailiak zentzuna erabili bihar dau eta espaloia libre laga”

“Aparkaleku gehixago sortzia izango litzake egokixena. Baiña nun herri honetan?”

Erdigunian: Santa Ana, Etxaburueta, Rabal, Zubi Nagusixan... askotan arazuak sortzen dira jentia oso erosua dalako eta ez dagualako kontzientziauta. Txurruken, Zeleta eta Ezozki Bidetik be kotxian bajatzen dira trago bat hartzera. Horrek arazo gehixago sortzen dau.

-Lehen baino tolerantzia gehixago dakazue multak jartzerako orduan?

Gu oso tolerantziak gara. Multak jartzen hasiko bagina egunian ehundaka jarriko gendukes. Noiz jartzen doguz? Oztopuak jartzen diranian. Autua erabiltzen dabenak zentzuna be erabili bihar dau eta espaloia garbi laga. Ezin da onartu batzun kulpaz bai umiak edo bai adineko jentia bidera urten bihar izatia. Are gutxiago elbarrixak. Orduan bai jartzen doguz salaketak. Polizian zeregina prebentibua

da baina errepresibua ahaztu barik eta batzuk errepresibua bakarrik ulertzen dabe. Esan biharra dago plazentzian jartzen doguzen multak legez jarri leikesen merkiegak dirala.

-Ze gomendio egin zeinke herri-tarrerri?

Plazentzian sekula ez da izan erreza aparkatzia eta etorkizunian be ez da izango. Danok nahi dogu etxe onduan aparkatzia baina hori ez da beti posible izaten. Pixkat ibili egin bihar da.

-Zela hobetu leike egoeria?

Oso gaitza. Herri batzuk ez dabe gehixagorako emoten. Autua gainera gero eta gehixago egongo da. Aparkaleku gehixago sortzia izango zan egokixena, baiña nun herri honetan? Nik uste dot trafikua bihar dan moduan jartzen danian leku gehixago egongo dala eta Erregetxeko aparkalekuekin be irabaziko dala baina aldapa asko eta terreno gitxi dago Plazentzian aparkalekuak egiteko. Danok jarri bihar dogu zeozer gure aldetik, ideiak emon; eta beste herrialde batzuetan egitten dan moduan, Holandan adibidez, bizikletian erabilpena bultzatu. Eibartarrena egin biharko dogu bestela: ibaixa tapau eta aparkalekuak egin bertan.

BERTAKO ETA KANPOKO herritarren testigantzak eta eritzia



Diego Sanchez

Eguerdixan urten eta gabeko hamaitketan heltzen naiz Plazentziara. Santa Ana kalia bizi naiz eta bertara juaten nnaiz lehenengo, ia lekurik dagan; ez badago Frontoira eta gero Erregetxera. Han be ez badago, itxoin edo bestela Plaza Zaharrera. Ostiraletan Bergaran lagatzen dot. Nere bikotiak be autua daka eta berakin etortzen naiz; ez da lekurik egoten sekula ostiraletan. Bergaran be gaizki dago gauzia, han be herri guztia obretan dago, baina hamen baino hobetutuago.



Claudio Unamuno eta Jesus Ariznabarreta

Bixok apuntau gaozik Erregetxeko lurraspiko aparkamentutarako. Aspaldixan lekurik topau ezinda ibiltzen gaittuk. Doblefilan laga juagu oin be. Obran dabixen bittartian aguantau egin bihar; gero egotia komeni dok baina hau ezin dok asko mejorau. Oin arte SACIAKO aparkalekuak salbau juek problema baina oin? Lan orduetan, tira, libre egoten dok baina behin 6:30ak eta gero jai. Entierua tokaez gero problema demasa.



Joseba Nabaridas (Gasteiz)

“Banatzaillia naiz eta asteazken goize-ro etortzen naiz Soraluzeza bertako bi gozodendatar. Iratxora noanian hemen lagatzen dot furgonetia; ez dot sekula arazorik izan, denbora luzian ez naiz egoten-eta. Santa Ana kalera noanian han ez da egoten lekurik eta doble filan laga bihar izaten dot. Gasteizen be ez da erreza aparkatzeko lekua topatzia, ez bada ordaintzen diran horretakua. Etxe onduan badaukagu garajia baina aitak erabiltzen dau. Nik buelta pare bat emon bihar izaten dot.”

Martxoaren 18an Korrika pasatuko da Soraluzetik (13:25ean)

Martxoaren 18an igaroko da 14. KORRIKA Soraluzetik. Orreagatik Bilborako bidean, Maltzagatik Soraluzera eta gero berriz Maltzagara joango da "Euskal Herria Euskalduntzen" lema-pean. Korrikalariak 13:00ean egin dute hitzordua Gila zubian.

Zapatuko ekitaldiak bertan behera utzi eta gero (Juanjo Urrutiaren omenaldia zela eta), datozen egunetarako hainbat ekitaldi antolatu ditu Korrika Batzordeak:

MARTXOAREN 16AN

eguzatena

- 19:00etan Musika Eskolaren UDABERRI kontzertua. (Elizan)

MARTXOAREN 17AN

eguen

- 16:00etan KORRIKA TXIKI
- 17:00etan Umiendako jolasak Plaza Barrixan.
- 19:30etan Abesbatzaren saioa.

MARTXOAREN 18AN

barikua

- 13:00etan Gilatik KORRIKARI ongi etorria ematera.
- 19:00etan txokolate jatia.
- 22:30etan Morauren kontzertua Gaztetxean.

MARTXOAREN 19AN



13. Korrika 2003. urtean Soraluzen.

zapatua

- 9:00etan Mendigaina Ezagutzen (Plaza Barritik)
- 12:30etan Dantza saioa
- 16:30etan Soraluze-Pedrusko (Ezoziko futbol zelaian)

MARTXOAREN 20AN

domeka

- Autobusa Bilbora (Sarrerak salgai tabernetan)

Jokin Oregiren lan berria: Robin eta Hood

Jokin Oregi aktore, gidoilari eta zuzendari plazentziatarrak idatzi eta zuzentzen duen "Robin eta Hood" haur antzezlan igande arratsaldean estreinatu zuen Gorakada antzerki taldeak Durangon. Aurreko ikuskizunarekin (Jim altxor uhartean) ez bezala, Robin Hood pertsonaiaren egokitzapen propioa egin duela adierazi digu Oregik: "Altxorraren uhartea klasiko unibertsal bat da, badu idazle ezagunik, Stevenson, eta antzezlan hartan bertsio originalari estu lotu nintzaion. Robin Hood, berriz, XII.mendetik bueltara eta aldatzen dabilen pertsonaia da; anonimotasun hori aprobetxatu dut Robin eta Hood nire bertsio partikularra egiteko". Antzezlan berrian, txontxongiloek eta haragizko aktoreek irtengo dute oholtza gainera, haur eta ez hain haurren gozameneko. Bestalde, iaz Serantes antzerki sari ospetsua jaso zuen "Ezin dut egia esan" helduentzako bere lana, Artezbai argitaletxeak plazaratu berri du.

Genetika eta hizkuntza ikerketa Deba ibarrean

Datozen asteetan, hiru filologok eta Baionako Ospitaleko Bauduer hematologoak genetika eta hizkuntza ardatz dituen ikerketa bat egingo dute Deba eskualdean. Ikerketa Euskal Herri guztian egiten ari dira baina ikerketaren jomuga euskalkiak direnez, guneka ari dira banatzen lana. Orain Deba Arroan hasiko dira. Lanari ekiteko, ordea, 50 bolondresen laguntza behar dute. Ikerlariak 55-60 urte bitarteko gizonezkoak behar dituzte; bai eurak, baita guraso eta aiton-amonek ere Deba ibarrekoak izan behar dute; zortzi abizen euskaldun izatea ere komeni da. Bolondres aurkezten direnei odola atera eta elkarrizketa bat egingo zaie euren etxeko euskararen gainean. Ikerketaren helburua da ikustea ea hizkuntzak euskaldun guztiok lotu gaituen bezala, genetikak ere lotu gaituen. Ikerketa Frantziako Ikerketa Zentro Nazionala ari da bultzatzen.



Morau eta Agotak taldeak Gaztetxean eskeiniko du kontzertua 18 gauean.

IÑAKI IÑARRA
HARATEGI ETA URDATEGIA

Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Soraluze

EGOKITUTAKO GANADU-HARAGIA
[b]
CERTICAR
OPERACIONES DE PRODUCTOS CERTIFICADOS
CARNE DE VACUNO CERTIFICADA

Telefona 75 24 09

ARRANO
tabernia

"Giro euskalduna eta sanua"

ETORRI ETA GOZATU

EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

etxera



Jende asko urreteratu zen senide eta lagunek Juanjo Urrutiari zapatuan Soraluzean egin zioten omenaldira .

Uruguain errefuxiatuta 15 urte egin eta gero hil da Juanjo Urrutia soraluzetarra, gaixotasun luze baten ondoren.

Martxoaren 12an hil zen Juanjo Urrutia soraluzetarra Montevideoko eritetxe batean. Joan zen abenduan ingresatu zuten Juanjo eritetxean, 1994ko espetxealdiaren ostean harrapatutako gaixotasuna larriagotzearekin batera. Azken bi hilabeteetan, guraso eta lagunak izan ditu aldamenean baina ezin izan dio gaixotasunari aurre egin eta sorterritik kanpo galdu du bizia 44 urterekin. Joan zen zapatuan omenaldi hunkigarria eskeini zioten herrian.

Hiru iheslari soraluzetarretako bat

Juanjo Urrutiak 1989ko apirillean ihes egin zuen herritik. Guardia Zibilak, bere ama (ordu batzuetara aske gelditu zena) eta Pedro Jose Etxeberria (15 urte peso daramatzen soraluzetarra) atxilotu zituela jakin ondoren.

Garai beretsuan ihes egin zuen Luis Casares-ek ere (5 urte kanpoan egin eta gero, 1996ko martxoan Iparraldean hil zenak). Ordurako 15 urte inguru zeramatzan erbestean Eloi Uriarte soraluzetarrak, eta gaur egun ere hala jarraitzen du. Bere garaian, ETArekin harremana izatea egotzi zien poliziak hirurei.

90. Hamarkadan Uruguaira

90. Hamarkadan Juanjok Uruguaira jo zuen babes bila. Han ez zuen ordea bilatzen zuen lasaitasunik aurkitu eta kanporatua izatearen arriskupean ibili behar izan zuen beti.

Espainiaren presioen ondorioz, 1994an Uruguako gobernuak gartzelaratu egin zuen beste hainbat euskal iheslariarekin batera. Gartzelaratzeko horien

Omenaldiaren ostean, aurrepegiak instalatu zuten ezezagun batzuek BBVA erasotu eta zaborrontzia erre zuten.



Martxoaren 5ean Donostian egin zen manifestazioa.

aurka Uruguako herritarrek egindako mobilizazio jendetsuei esker, 18 hilabeteren ostean aske utzi zuten, erresistentzia paperik gabe ordea. Horren ondorioz, lanik gabe eta klandestinitatean bizi behar izan zuen urte askotan.

Gartzelaldiaren ostean, zirkulazio arazoak zituela-eta ebakuntza egin zioten. Gerora izan zituen tratamenduak behar bezela jaso ez eta gaixotasunak txarrera egin zion.

Omenaldiak, manifestazioak, mozioa eta istiluak


Juanjoren heriotza salatzen eta "Iheslariak etxera" ekartzeko eskatuz, hainbat ekitaldi egin da egunotan. Heriotzaren egunean bertan eta ondorengo bi egunetan, manifestazioak antolatu ziren herrian. Montevideoko Euskal Etxe-

an ere omenaldi hunkigarria jaso zuten bertaratu ziren senideek. Zapatuan, Soraluzeko Askatasun Haizeak Plataformak eskatuta, Udalbatzar Berezia deitu zuen Udalak. Batzarrean, SAHk Juanjo Urrutiaren heriotza salatzen aurkeztu zuen mozioa eztabaidatu zuten. Mozioak, sei puntu zituen: estatuen exterminio politika salatzea, udaletxeko balkoian ikurriña jartzea kespoi beltzarekin, Udalak gastuak bere gain hartzea, Juanjok "Euskal Herriaren alde egindako ekarpena" aitortzea, EHk bere etorkizuna erabakitzen eskubidea aldarrikatzea eta gatazka konpontzeko preso, iheslari eta deportatuak etxeratzeko duten eskubidea adieraztea. EAJ, EA, eta PSEko zinegotziek mozioren aurka bozkatu zuten eta Udalak ez zuen onartu. Arratsaldean, Soraluzeko bere lagun eta senideek antolatuta, omenaldia egin zioten Plaza Barrixan. Senide eta lagunek gutunak irakurri zituzten eta Amnistia-aren Aldeko Mugimenduak gogor salatu zuen Juanjoren heriotza, "bere herritik urrin hil bihar izan dau, herri honen eskubideen aldeko borrokan eta bere herriko Udalak ez du senideak laguntzeko batere borondaterik erakutsi. Hori oso mingarria da". Omenaldiaren ostean, manifestazio jendetsua egin zen herriko kaleetan zehar.

Ekitaldiak amaitu zirenean, burua instalatu zuten ezezagun batzuek BBVAko atera koptailak bota eta zaborrontzi bati sua eman zioten. Ertzainak eta suhiltzaileak berehala etorri ziren eta segituan itzali zuten sua. Zorionez, kalte materialak bakarrik izan ziren.

Ane Mendia**Duatloian irabazle**

Bere estreineko duatloian, Basaurin, Ane Mendia Soralezetarrak denporarik onena lortu zuen 23 urtez azpiko emakumezkoen kategorian. Partehartzaileek 30 kmko ibildidea osatu behar izan zuten: 6km korrika, 21 bizikletan eta beste 3 korrika. Ane Eibaroko Debarbarrena emakumezkoen taldean ari da entrenatzen udan jokatzeko diren triatloietarako prestatzen.

**Soraluzeko txuri-urdinek bi urte**

“Soraluzeko Txuri-urdinak” elkartearen bigarren urtemuga ospatzeko, egitarau zabala prestatu dute elkarteko ardurdunek. Larunbat goizean puzgarriak eta opariak izan ziren bazkide txikiendako. Ondoren, bazkideen argazkia eta bazkaria Txurruka jabetxean. Igandean, berriz, salda eta txorizoa eta salbamentu txakurren erakustaldi ikusgarria frontoian.

**Lilatoia**

Martxoaren 8an, 5 km-tako korrika saioa egin zuten Donostian argazkian ageri diren 5 plazentziatarrek. Gizon-emakumeen arteko berdintasuna aldarrikatzeko egiten da Lilatoia. Hurrengo apirilaren 10ean izango da, Askainen.

EMAITZAK**Futbola**

-Martxoaren 13an-
Ondarroa **2**- SORALUZE 0 (**Erre.**)
Lengokoak **7**-SORALUZE 2(**Jben.**)
Urki **7**-SORALUZE 0 (**Kadet.**)

Esku pilota

Iñaki Jauregi
Berria txapelketan,
Zabalakin **22-14** irabazi
Atxotegi
Saramagoko txapelketan,
Ulaziak **22-9** irabazi
Txurrukakin **22-20** irabazi

KORRIKAREN ALDEKO PARTIDUETAN

-Ibai-Hasier **18**
Gorka-Xabier **14**
-Iñaki-Jokin **18**
Andoni-Ander **15**
-Iker-Markel **18**
Juaristi-Gorka **16**
-Atxotegi-Erlei **22**
Antxon-Fernandez **14**
-Arrieta-Azkorbebeitia **22**
-Muguruza-Heriz **18**

Pala txapelketan


-Ibabe-Unamuno **35**
Portu(aitta)-Alonso **18**
-Ibabe-Unamuno **35**
Txillarre-Jose **15**
-Eneko-Iban **35**
Etxebarria-Laskurain **23**
-Eneko-Iban **35**
Calles I-Calles II **20**
-Calles I-Calles II **35**
Jon- Ander **18**



SALAZAR
Altzariak
Altzariak-Apaindurak
Sukaldeak - Elekratresnak

Errekalde, 7 -20590 Soraluze Telefonoa/Faxa: 943752388

ELIZPE



h o r t z k l i n i k a

Elizburu, 3 behea
9 4 3 7 5 2 5 6 7
20590 Soraluze

Kontsumo kooperatiba



Tel.: 943 75 13 45

MENDIZABAL

OKINDEGIA



Kalebarren,10
Telefonoa 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonoa 943 75 13 99
SORALUZE

Mertxe Maiztegi

Zarataka hasten naizenian danak entzun bihar izaten doste.

Joan den martxoaren 8an Emakume langilearen nazioarteko eguna ospatu da mundu guztian. Soraluzen ere bada makina bat emakume langile, etxeko lanetaz aparte lan merkatuan buru belarri ari dena. Gure elkarrizketatua Mertxe Maiztegi Soraluzetarra da, Estazio kaleko 7. zenbakian dagoen an dagoen Kandal tailarreko arduradun eta zuzendaria.

Izena abizenak eta adina?

Mertxe Maiztegi Galarraga, 54 urte
Jaioterría?

Plazentziatarra naiz baina oin dala 26 urte Eibarrera juan nitzan bizi izatera.

Ze ikasketa daukazu?

Oinarrizkoa: Batxilerra eta kontabilitatea ofizianarako lanak egitteko; bizi-moduak erakutsitsakua gero.

Ze produktu egitten dozue hamen?

Tuerka espezialak egitten dittugu RENFERako, auto, kamioi, traktorien dako...automozioñorako orokorrian.

Noiz hasi zinan hamen lanian?

21 urte izango dira. Lehenago Oljan ibili nitzan 18 urtian; haura itxi zanian, 20 bat langile lan barek geratu ginan eta 6 edo 7 hona etorri ginan.

Noiz jarri zinan arduradun?

Hasiera-hasieratik.

Hori ez da askotan pasatzen

Normalian ez da hola izaten baina batzutan tokatzen da. Plazentzian bertan badare pare bat andra tailarreko arduradun.

Zenbat langile zabizte lanian?

Lau nerekin. Beste hirurak gizonetzkuak dira baina premiñia daganian beste andra bat etortzen da laguntzera. Harixa emoten esku fiñekuak dia andrak; bestela, gizonetzkuendako aproposagua da lana, pixu haundixa daken barrak mobidu bihar izaten dira-eta.

Ahalmen berdinin, zein aukeratu-ko zenduke; gizona ala emakumia?

Nik emakumia. Gizonekin leporaiño nago lehen be. Andrak konstantiaguak dira, fiñaguak, lanian jardunaguak.

Ze pentsatzen jatzu orduan lan munduan gertatzen dan bazterketia?

Ez da bape justua. Nere kasuan ez da



Mertxe Maiztegi

Bertso Begiz

Hainbat urtean mantendu duzun eguneroko jarduna, zenbait gizonen buruzagia, laneko arduraduna. Baina horrela gutxitan dela ez da hain ezezaguna; lantegietan burdinek baino gizonek pisu astuna. Ea lehenbailen erdiesten den guztion berdintasuna (bis).

Neko

(Doinua: Aita izena entzun beharrak...)

“Andrak konstantiaguak dira, fiñaguak, lanian jardunaguak!”

holakorik pasau, hamen danok gara berdinar eta ni errespetatzen nabe. Kobrau be denok egitten dogu konbenixuan arabera. Errespetua galtzen bada, kitto! Ez naiz haundixa baiña zarataka hasten naizenian danak entzun bihar izaten doste.

GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

Gosarixak eta pintxo goxo goxuak !!



Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34

JAVIER ALONSO ZELAIETA

434 ZENB.KOL

HORTZ KLINIKA

MEDIKU ESTOMATOLOGOA



ATXURI 1-1. ESK TELF. 943 751613

"GURE IRRATIA" BIDE GURUTZEAN!!

GURE ERRONKA:
EUSKARAREN BIZIRAUPENA EUSKARA GALTZEN ARI DEN EREMUAN

**GURE IRRATIAK FUNTSEZKO PAPERA DAUKA BIHAR EUSKARA BIZI DADIN
LAPURDIN ETA EUSKAL HERRI OSOAN**

**Lapurdiko Herri Irratiak bere 23 urteko ixtorian
aldaketa nagusia biziko du aurten:
lokal berri bat eraikitzen doa
eta zure laguntza baitezpadakoa du.**

Ipar Euskal Herria euskara desagertzea onartzen ez dugulako, eskerrak zure laguntza premiatsuagatik jasotzeko.

Herritarren sustengutegia jasotzeko:

-Ipar Euskal Herria: Crédit Mutuel: 15999 02277 00050514940 64
-Hego Euskal herria: Euskadiko Kutxa: 3035 0059 81 0590071330



Gure Lokala



 **SORALUCE**

Fresaketa teknologia



 **SORALUCE**
GRUPO DANOBAT

 **SORALUCE S.Coop.** • Osintxu auzoa • P.O.Box. 90 • E-20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Tel. +34 943 769076 • Fax: +34 943 765128 • Web: www.soraluce.com

14. korrika æek

Euskal Herria euskalduntzen ORREAGA-BILBO'05

MARTXOAREN 18AN
KORRIKA Sorraluzen 13:25ean Maltzagan
(13:00ean aterako gara Gila zubitik)



MARTXOAREN 20AN
Autobusa Bilbora
(Sarrerak salgai tabernetan)




iheslari
politikoak
euskal herrian

libre



*Agur
eta
ohore,
gudari!*



JUANJO URRUTIA PIA
euskal iheslari politikoa Uruguain hila

Omenaldia
Arrasaldeko 18:30etan
Plaza Barrixan